



Esp.kodea: 2021JDIR0009

Gaia: TXIKILANDIA 2022  
Hasiera eguna: 2021/12/13

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko abenduaren 16an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

### “Txatxilipurdi elkarteak: 2022ko Txikilandia antolatzeko laguntza eskatzea (2021JDIR0009)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Garapen Komunitarioaren Batzordeburuaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Txikilandia 2022 Gabonetako parkearen egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu ditu Txatxilipurdi elkarteak, urtarrilaren 2, 3 eta 4an burutuko dena. Egitasmo honen helburua da haur eta gaztetxoei aisialdi hezitzailea eskaintzea gabonetako opor egunetan eta familian konpartitzeko gune bat sortzea. Txikilandia 2022a ondoko gune hauetan burutzea aurreikusi da: Uarkapeko frontoian, Gaztetxean, Gaztegunean eta Monterron parkean.

Txatxilipurdik aurkeztutako txostenean azaldu du COVIDari dagozkion osasun neurri guztiak zehatz-mehatz beteko dituela, aforoa, musukoa, hidrogela, aireztatzea eta abar.

Udalaren aldetik azaldu da prestasuna aurreko urteotako ekarpen berberak egiteko gabonetako parkeari: udal instalazioak eta bestelako azpiegiturak doan uztea eta 15.000 € arteko diru laguntza.

Gaia aztertuta, Garapen Komunitarioko batzordeburuak hauxe proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

**LEHENENGO.** Urtarrilaren 2, 3 eta 4an Txikilandia burutzeko erabiliko diren udal instalazioak doan uztea. Zehazki: Uarkapeko pilotalekua urtarrilaren 2an, 3an eta 4an, goiz eta arratsalde; Gaztegunea urtarrilaren 2an eta 3an. Era berean, Monterron parkea erabiltzea baimentzea.

**BIGARREN.** Txikilandia antolatzeko 15.000 €ko diru kopurua izendatzea 2022ko aurrekontuetan *Txikilandia diru laguntza* partidan.

**HIRUGARREN.** Txikilandiaren antolaketak sortutako gastu eta sarreraren balantzea aurkeztu beharko du Txatxilipurdi elkarteak; balantze horren arabera zehaztuko da behin betiko diru laguntza kopurua, gehienez ere 15.000 € izango dena.

**LAUGARREN.** Udal ludoteketan sarrera murrizta duten hurrei eta LEKeko dirulaguntza onartuta dutenei Txikilandian ere sarrera murrizta (%10a) aplikatuko die Txatxilipurdik; kuotaren gainontzekoa (%90a) aipatu laguntza horren kontura joango da.

<b>Kodea</b>	BB21/01269	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/abe./17	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAMZNF.C.gPZL
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMZNF.C.gPZL">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMZNF.C.gPZL</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021JDIR0009

Gaia: TXIKILANDIA 2022  
Hasiera eguna: 2021/12/13

**BOSGARREN.** Gogoraraztea Txatxilipurdi elkarteari Txikilandia burutuko den egun eta gune guztietan, indarrean dauden osasun eta babes neurri guztiak bete beharko dituela.

**SEIGARREN.** Erabaki honen berri ematea Txatxilipurdi elkarteari, kirol sailari, OZMAri, Udaltzaingoari eta kontu hartzaileari.”

*Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

*Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsu aurkeztu dezakezu.*

Idazkaria

TXATXILIPURDI HAUR ETA GAZTE EKINTZAK  
NAFARROA ETORBIDEA, 23 - 1.  
20500 ARRASATE/MONDRAGON

<b>Kodea</b>	BB21/01269	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/abe./17	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAMZNF.C.gPZL
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMZNF.C.gPZL">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMZNF.C.gPZL</a>		

Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu

